

Jolasmugi!

Olatu Talka 2014

2014-5-24

Cervantes Plaza

Turismoa Donostian:
aisialdi eta dibertimendu bateratzaileak

Donostia Europako Kultur Hiriburua (Poloniako Wroclawkin batera) izendatu ondoren, aniztasun funtzionalarekin erlazionatutako hiriko hainbat elkarte eta erakunde elkarlanean hasi ginen hiriko turismo eta aisialdi bateratzailearen eskaintza sendotzeko. Hiriak, bere ondare artistiko eta kulturalak, eskaintzen dituen aisialdirako proposamenek, bere aisiarako eta erlazioetarako guneek, hiritar ororen esku egon behar dute, bai eta menpekotasun funtzional egoeran dauden pertsonen esku ere.

Honako hauek gara: **Elkartu**, ezgaitasun fisikoa duten pertsonen Gipuzkoako Federazioa, **Hegalak Zabalik Fundazioa**, kirol egokitua, **Nazaret Zentroa**, 2014ko Novia Salcedo saria irabazi berri duen prestakuntza zentroa eta **KutxaZabal zentroa**, menpekotasunaren arretarako prestakuntza lantzen duen zentroa.

Olatu Talka baliatu nahi dugu edozein pertsonak bere ingurune naturalean aisiarako duen eskubideari buruzko kontzientziazioa handitzeko ekimena aurkezteko. Hitzik gabeko antzerki emanaldian parte-hartzera, hala moduzko bisita gidatuetan parte-hartzera edota bateratzaileak diren jolas kooperatiboetan parte-hartzera bultzatuko gaituen ibilbidea izango da. Edozein adinetarako da, baina bereziki pertsona helduei zuzendutakoa da.

Bidean, **Manos K Ríen** elkarteko antzerki taldea, **AGI** elkarteko lagunak eta **MusikaHazikoek** ere gehitu zaizkigu. Beste elkarte batekin partekatuko dugun Cervantes plazako gunera egokituz, honako hau dugu proposamena:

Jolasmugi!
Orutegia: 11:00 – 14:00

Aisialdiaren labirintoa:
Pertsonak ibilbide jakin baten zehar gidatuko dituzten zintak jarriko dira, gunea nolabait mugatzeko alde batetik, eta gurpildun aulkietan mugitzen direnek egunerokotasunean izaten dituzten oztopo arkitektonikoei buruz kontzientziazteko bestetik. Ibilbidean honako hauek topatuko dituzte:

- 1.- Informazio puntua
Ekimenari buruzko eta antolatzaile diren elkarreei buruzko informazioa eskainiko da, bai eta programa ludikoa ere.
- 2.- Mimo tailerra (Manos K Ríen), Globoflexia (AGI), EntzunTalka tailerra (Musikaikasi)

3.- Tamarindo xuxurlariak (Elkartu)

Tamarindoak gure ekimenarekiko konplize bihurtuko ditugu. Irisgarritasunari buruzko eskaerak eta lorpenak ardatz harturik, hiriko zenbait gune esanguratsuren iragana eta oraina azaltzen duten hainbat horma-irudi zintzilikatuko ditugu tamarindoetako batzuetan. Arbola bakoitzean, esperientzia eta guneari buruzko azalpenak emango dituen pertsona egongo da.

4.- Tour Turistikoa (AGI)

Itsua diren pertsonen gidatuta, Cervantes plaza inguruko ibilaldi turistikoa eskainiko da.

5.- Jolas kooperatiboetako txokoak (Nazaret eta kutxazabal zentroa)

Taldeko jolasen Gymkhana:

- 5.1.- Erreleboa: lastotxoekin edalontziak betez
- 5.2.- Xaboi ponpa erraldoia
- 5.3.- Gurrpil gaineko trebezia
- 5.4.- errelebo ahula
- 5.5.- Paraxutak eta puxikak

6.- Informazio puntua

Balorazioen bilketa eta agurra.